

ataria

Ahozkotasunaren ondarea eskura jarritz

Politika

*ETAk bere gain hartu du
Tolosan 1981ean hiru hildako
eragin zituen atentatua*

2018-11-16
959. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus



AZKEN ETXEBIZITZAK



1ºA : 156.000 € + BEZ
1ºB: 159.000 € + BEZ

AMEZKETA - San Bartolome, 35

2º eta 3º gelako etxebizitza, garaje itxia, trastelekua.



2 gela: 185.000 €tik
3 gela: 200.000 €tik

ANOETA - Iturtxulo kalea,1

235.000 € + BEZ aurea



VILLABONA - Maiatzaren lehena plaza


210.000 € + BEZ aurea



IRURA - Kale txiki

VPO etxebizitzak: 3 gela eta garaje itxia.

155.070,47 € + BEZ aurea



ORDIZIA - Filipinak kalea 34-36

275.000 € + BEZ aurea



ALEGIA - Beistin auzoa

155.000 € + BEZ



IRURA - Laskibar auzoa,15

Aniztasunaren alde

Lovestar; Marvelous; Precious; Ilyes; Mohamed; Success; Excel; Ayesha; ... Eta horrela, hogeita hiru izen zenbatu ditzaket. Ez dira atzerriko film bateko protagonistak. Ez. Nire lanean erabili beharreko izenak dira. Zeuen buruari galdetzen ariko zarete asko eta asko ea non egiten duan lan. Euskaltegiren batean? Atzerrian? Gizarte zerbitzuetan? Ez. Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe publikoen sareko irakaslea naiz, Gasteizko bihotzean dagoen eskola batean, hain zuzen ere. Eta hauek hiru urteko gelako nire ikasleak dira, guztiek ere Euskal Autonomia Erkidegoa ez den jatorria dute; guztiek.

Ados. Gasteiz ez da Abaltzisketa. Ez da arnasgunea. Baina salbuespena ote da nire ikastetxea? Ez. Iaz, zoriz –onez edo txarrez– Arabatik barrena aritu nintzen lanean. Hamaika ikastetxe ezagutu nuen eta askotan egoera antzekoa da. Horrez gain, Gasteizen lanean gabiltzan hainbat irakasle partekatzen dugu kotxea egunero eta denok ere antzeko errealitatea bizi dugu, nork bere ikastetxean. Ederra, transmititzen diegun mezua, bai horixe: Etor zaitezte guregana, baina, faborez eta mesedez, ez zaitezte gurekin nahastu. Eta horrek ez digu, inondik ino-

ra, Gasteizko nahiz Euskal Herriko kaleetan ikus daitezkeen neska-mutikoen benetako argazkia islatzen.

Orain dela astebete eskas, Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen txostenak ere agerian utzi du ez dela salbuespena. Uriarte sailburuak portzentaje eta zenbaki dantza aurkeztu zuen komunikabideen aurrean. Esanguratsuen omen ikasle etorkinen %67a eskola publikoan matri-

kulatuta dagoela. Ez da ezer berria. Datuok berretsi baino ez dute egin urteetan sare publikoan lanean dabiltzanek badakitena: Gure hezkuntza-sisteman jatorriarekin –eta klase sozialarekin– lotutako eskolatze desoreka dagoela. Beste hitz batzuetan: Eskola segregazioa dagoela.

Eskola publikoko irakasleonek betebeharra da, noski, arestian aipatutako mezu hori irauli eta ikasle hauek merezi duten kalitatezko hezkuntza jaso ahal izateko ahaleginak egitea. Jendarteak haien izenak idatzita duen etorkizunaren lerro ilunak aldatu eta euren eskubidea den etorkizun duin bat eraikitzen laguntzea. Eta sekula-

ko lana egiten ari gara egunero-egunero. Etengabeko erronkei egin behar izaten diegu aurre: erronka kulturalari, sozialari eta ahaztu ezin den erronka linguistikoiari. Hori da gure lana. Eta bete egiten dugu.

Baina agintarien betebeharra da egoera honi irtenbidea ematea behin betiko. Nola? Aniztasuna kudeatzeko baliabide egokiak eskainiz eta legeak aldatuz. Eta gu guztion betebeharra izango da agintari horien erabakiak gainbegiratu, kritikatu eta errepika ez daitezen neurriak hartzea. Bien bitartean, segregaziorik gabeko hezkuntza anitzaren alde borrokan jarraitu beharko genuke, etxe barrutik zein kanpotik.



**NOELIA LATABURU
ORTIZ**
IRAKASLEA

**Ederra transmititzen diegun mezua,
bai horixe: Etor zaitezte guregana,
baina, faborez eta mesedez,
ez zaitezte gurekin nahastu**

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIARI ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ane Urkola

«INDARKERIA MATXISTA ADINEKO PERTSONEN ARTEAN ERE BADAGOELA IKUSI BEHAR DUGU»

Itzea Urkizu Arsuaga

Azaroaren 25eko aldarrikapenen zerrendan, adineko emakumeek jasaten duten indarkeria matxista ere sartu beharra dago. Baieztapen horri tiraka hitzaldia eskainiko du, azaroaren 26an, Izaskun Solagaistua Arzak (Durango, 1979). 18:00etan hasiko da, kultur etxean, eta izen-ematea zabalik da han bertan.

Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista ez dela ikusarazten diozu.

Indarkeria matxistari buruz hitz egiten dugun, askotan ez da ikusarazten emakume helduek jasaten duten arazoa; beraiek ere indarkeria matxistaren biktima dira. Zergatik? Bada, adibidez, gehiago azpimarratzen delako emakume gazteek jasaten duten indarkeria matxista, eta arazo horren inguruan dauden bestelako kontuak. Indarkeria-ri buruz orokorrean hitz egiten dugu, baina ez dugu ikusten, nagusien artean ere badirela genero arauak; alegia, adineko pertsonen aurkako indarkeriaz gain, emakumeen aurkako indarkeria ere badagoela adineko pertsonen artean. Kasu askotan, adineko emakume horiek bizitza osoan barrena jasan behar izan dute indarkeria matxista hori, beren bikoteen aldetik.

Harreman mota hori barneratuago dute, belaunaldi gazteagoek baino.

Batetik, arazo sozial bat dagoela uste dut, eta kosta egiten zaigula begirada hor jartzea. Baina, horrez gain, adineko emakumeentzako zaila izaten da indarkeria hori identifikatzea, normalizatzen hartu izan dutelako beti. Gazte garaian, hezkuntza jaso zutenean, eredu matxistak oso gogorrak ziren, eta diktadura garaian emakumeei zuzenduriko mezuek zeresan handia dute, gaur egun indarkeria egoera horiek bizirik egote horretan: emakumeek beren bikoteen zaintzaile eta zerbitzari izan behar zuten, eta rol horretan egon beharra zeukaten, sumisio eredu horietan, bai ala bai.

Horren ondorioz, egia da, askotan

IZASKUN SOLAGAISTUA ARZA

SORTZEN AHOLKULARITZAKO PSIKOLOGOA

Egiturazko arazoa da indarkeria matxista eta, gizarteak zapalkuntza hori gero eta ozenago gaitzesten duen arren, adineko emakumeen bizipenak itzalean geratzen dira sarri.



normaltzat hartzen dituztela indarkeriazko egoerak, eta oso barneratuta dutela munduan egokitu zaien rola, edo beren bikoteen gehiegikeriazko jarrera. Gainera, gizartearen arazo hori behar bezala ez ikusarazteak, eragiten du, halaber, emakume horiek beren jazarpen egoera ez identifikatzea; eta, beren bikoteek ematen dieten tratua gustatzen ez bazaie ere, beste kontu bat da hori plazaratu eta kontatzeko pausoa ematea. Oso prozesu zaila izaten da.

Kanpoko pertsona batek nola identifikatzea, emakume batek urteak daramatzala, egunero-egunero, horrelako harreman mota bat bizi-tzen?

Ez da erraza. Batetik, aipatu bezala, zaila da adineko emakume batek bere egoera plazaratzea. Ordea, beste beharrian batzuk adierazten dituzte, adibidez, sintoma psikosomatikoak. Emakume horiek, ziur aski, ez dute gizarte zerbitzuetara joko, baina beharbada medikuarengana bai, osasun arazoak dituztelako, depresioa dutelako, estresa dutelako edo gorputzean mina dutelako. Finean, indarkeria egoera hori jasaten ari direlako, eta urte askotan barrena, gainera. Beste errealitate bat ere bada. Beharbada, emakume horien senarra hil egin da, baina bizi izandako guztiak sortutako trauma hori horratzen da. Sintomak, beraz, fisikoak zein psikikoak izan daitezke.

Gizarteak, oro har, adineko emakumeen egoera hori irakurtzeko alar-ma piztuta duela uste duzu?

Aurrerapausoak ematen ari gara, eta hainbat udalerritan protokoloak egiten ari dira, hainbat zerbitzuren koordinazioa antolatu eta hobetzeko. Hala ere, egia da zailtasunak daudela, eta kosta egiten dela indarkeria egoeran bizi di-

ren adineko emakume horiek erreakzionatzea, eta zerbitzu berezira jotzea, edo salaketa bat jartzea. Kasu horietan, emakumei eskaintzen zaien laguntzak bestelako bideak hartu behar dituela uste dut, beraien beharrak eta erritmoa kontuan hartuz; beharbada guk gauza bat egin behar luketela uste dugu, baina emakume horiek oraindik ez daude fase horretan. Entzun egin behar diegu eta, poliki-poliki, emakume horiek ahaldundutako prozesu bat abiarazi.

Pauso hori eman eta beren bizitza aldatzea erabakitzen duten emakumeen kasuan, testuingurua lagungarria izaten da?

Bai, noski, oso garrantzitsua izaten da inguruko paperak, batez ere, seme-alabena. Ordea, egoera horiek kudeatzea ez da erraza izaten, familia osoan eragiten dutelako, eta arazoak sortzen dira. Gainera, kasu askotan, seme-alaba horiek ere indarkeria matxista horren biktimak dira.

Emakume horien ikuspegiarekin batera, egitura oso batek aldatu behar duela, alegia.

Bai, inguruak eta gizarteak. Indarkeria matxistaren arazo larria gure adineko pertsonen artean ere badagoela ikusi behar dugu, eta gero ikusarazi; ez badugu ikusarazten, ez da sekula arazotzat hartuko.

Ezagutuko duzu indarkeria matxista errutina izan, eta bizitza aldatzea erabaki duen emakumerik.

Bai. Ez dago biktimaren profil zehatzik, eta beren egoeraz jabetzea zaila den arren, badira horrela bizitzen jarraitze-ari uko egiten dioten emakumeak; sumisio egoera horretatik alde egiteko ahal dutena egiten dutenak. Banandu edo dibortziatu egiten dira, eta hor ere

garrantzi handia izaten du inguruak, emakumeari tramite horietan guztietan laguntzeko. Egia da, beste emakume askoren helburua ez dela izaten egoera horretatik ateratzea: gizonaren heriotzan ikusten dute beren arazoaren irtenbidea, eta ez dira banatzen, nahiz eta identifikatu arazo bat dutela. Kasu horietan, emakume horiek poliki-poliki ahaldundutzen ere saia gaitezke, prozesu bati ekiteko eta ahalik eta ondoen bizitzeko. Noski, prozesu horren ondoren emakume horiek hortik irte-ten badira, hobe.

Askok al dira, alargundu ondoren mundu edo bizitza berri bat ezagutu duten emakumeak?

Bai, askok hala esaten dute, libreago sentitzen direla. Era berean, ordea, kulpasentipena ere sortzen zaie, bikoterik gabe geratzeak ez baitu arazoa konpontzen. Horregatik da garrantzitsua, emakume horiei bidean laguntzea.

Azaroaren 26an hori guztia hizpide izango duzu, Tolosan. Saioa, ordea, ez da adineko emakumeentzat bakarrik izango.

Emakumei begirako hitzaldia izango da, eta nahi duenak bertaratzeke aukera izango du. Azpimarratu nahiko nuke, saioa ez dela, bakarrik, indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeentzat. Esaten ari gara, hau guztia gizartearen arazo dela, horrenbestez, emakume guztiak hausnarketara deitu nahi ditut, hitzaldian. Indarkeria matxista ikusarazten saiatuko gara, eta arazoaren oinarria ere joko dugu, ikusteko. Eta, noski, publikitatean edo zine-man adineko emakumei esleitzen zaizkien paperak ere aztertuko ditugu, horrek ere kalte egiten baitio jasaten duten indarkeria matxista erdigunean jartzeari.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Iban Gurrutxaga: «Saioa berezia da hainbat ikuspuntutatik»

Iban Gurrutxaga gitarra jotzaile amezketarrak Etxe musikariarekin batera kontzertu akustikoa eskainiko du gaur kultur etxean

Imanol Garcia Landa

Amezketako Kultur Hamabostaldia bere azken txanpara iritsi da. Gaurkorako, gainera, kontzertu berezia antolatu dute: Iban Gurrutxaga herritarrak eta Iñaki Etxezarraga Etxek emanaldi akustikoa eskainiko dute kultur etxean.

Gurrutxaga gitarra jotzailea eta irakaslea da, eta, besteak beste, Etxeren taldean aritzen da. «Kontzertua berezia izango da niretzako hainbat ikuspuntutatik begiratuta», esan du Gurrutxagak. «Era profesional batean duela urte asko ez dudala kontzertu bat eman herrian, eta eskertzen da gonbita. Bestalde, berezia izango da azkeneko diskoa talde bezala egin dugulako, eta Amezketako kontzertua akustikoan izango delako».

Irailen kaleratu zuen Etxek bere azken diskoa, *Supernova* izenekoa, eta bertan parte hartu du Gurrutxagak, eta horren aurkezpenean egiten ari dira azkenaldian. «Herriko kontzertuan azken disko horretako bost bat abesti joko ditugu. Horrez gain, Etxeren ibilbideari errebasotxo bat egingo diogu». Urte batzuk badaramatzate elkarrekin eta Gurrutxagak dio «gustu handia» dela Etxerekin aritzea.



Iban Gurrutxaga eta Etxe, kontzertu batean. GAIKZA PEÑAFIEL

Ekitaldiek ez dute etenik

Gaur bertan, kontzertua bukatu eta gero, talo jatea izango dute frontoian. DBH4ko ikasleek antolatzen dute, Gaztelekuko en laguntzarekin.

Bihar, IV. Ergoneko Festa ospatuko dute: pilotako finala (eguraldi txarra bada goiko frontoian jokatu da), afaltzeko zahagi sagardoa egiteko aukera, eta ondoren erromeria.

Igandean bukatuko da Kultur Hamabostaldia, azokarekin. Hainbat postu jarriko dira plazan, eta eguraldi txarra eginez gero, Larrunarri frontoian egingo da. Eta, noski, Jokin Altuna pilotari amezketarraren finala ere gehitu da egitaraura. Autobusak aterako dira herritik Iruñean jokatu den finala ikustera joateko. Herrian geratzen diren tabernetan jarriko dute giroa.

EGITARAU

AZAROAK 16, GAUR

19:30. Iñaki Etxezarraga Etxe eta Iban Gurrutxagaren kontzertu akustikoa, kultur etxeko aretoan.

20:30. Talo jatea, Larrunarri frontoian, DBH4ko ikasleek antolatuta.

AZAROAK 17, BIHAR

IV. Ergoneko Festa

17:00. Frontoi zaharrean VI. Hiruterdiz-aurre Pilota Torneoko finala. Ondoren, poteoa.

20:30. Txoooootx! Altuna Anaiak frontoian. Jatekoa, nor berea eraman behar du. Parrila piztuko da. Gero, Oharkabe taldearekin erromeria.

AZAROAK 18, ETZI

10:00. Peri Eguna.

Gaztaina jatea, Ugarten, azaroaren 24an

Erredakzioa

Ugarteko Amuarrain elkarteak gaztaina jatea antolatu dute azaroaren 24rako, larunbata. Afaria elkartean bertan izango eta ordua, ohiturari jarraituz, 20:30ean izango da. Afaria trikiti eta pandero doinuez alaituko dela azaldu dute. Izena eman nahi

duenak Ugarteko Amuarrain elkarte- an, Goikoetxea tabernan edo Ametza tabernan egin beharko du. Horretarako azken eguna azaroaren 20a izango da, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, egun horretatik aurrera ez da onartuko izen ematerik.

Ordainketa gaztaina jatearen egunean bertan egingo da. Prezioari dago-

kionez, egunean bertan kalkulatu da zenbatekoa zein izango den, baina gutxi gorabehera helduek 20 euro eta haurrek (12 urte arte) 6 euro ordainduko dutela azaldu dute.

Amuarrain elkartetik auzotar guztiak animatu dituzte gaztain jatean parte hartzera, «ohitura on hauei gogor eusteko» esanez.

Hirugarren urtez egingo dute babarrun jatea

Albizturko Bizkor guraso elkarteak antolatu du ekitaldia, eta egun osorako egitaraua prestatu du

I. Garcia Landa Albiztur

Aurten ere babarrun jatea antolatu dute Albizturren, eta dagoeneko hirugarren urtea da. Bizkor guraso elkarteak antolatzen du, udalaren eta Arkaitz elkartearen laguntzarekin. «Guraso elkartearentzako garrantzitsua da, alde batetik familia giroan egoteko egun bat delako, adinezberdinetako jendea batuz eta jai egun bat sortzen dugulako. Bestalde, elkarteak baditu hainbat ekintza urtean zehar bermatu behar dituenak, adibidez, goizeko zaintza jarri eta irteeretan autobusa ordaintzea, eta babarrun jate-tik diru sarrera bat lortzen dugu gastu horiei aurre egiten laguntzeko», esan du Nagore Leon Bizkor guraso elkarte-kideak. «Horrez gain, Albiztur inguruko babarrun ekoizle garrantzitsuenetako bat da, eta egun horrekin hori ere nabarmendu nahi dugu».

Egitarau nahiko betea antolatu dute, eguerditik arratsaldera arte jarduerak izango baitira. Hasteko, triki poteoa egingo dute: herriko ostatuaren eta plazan jarriko duten barraren artean egingo dute poteoa, trikitilari-ek lagunduta. Bazkaria frontoian egingo dute, Albizturko babarrunekin batera,

EGITARAUA

III. BABARRUN JATEA

12:30. Triki poteoa.
14:00. Bazkaria.
16:00. Bazkalostea kantuan.
17:00. Haur jolasak.
17:45. Txokolatea.
18:00. Helduen jolasak.

odolkia, txorizoa eta saiheskia izango dute. Ondoren, kantatzeko aukera izango da, orriak banatuko baitituzte eta trikitilarien doinuek lagunduko die. Hori eta gero, jolaserako txanda izango da: lehenengo haurrak eta ondoren helduak, tartean txokolatea jateko aukerarekin.

Bazkarian 150 pertsona inguru izango direla espero dute. «Kopuru handia da, kontuan izanik Albizturrek 300 biztanle inguru dituela», esan du Leonek. «Gehienbat herriko jendea izango da, eta tartean seguru izango direla kanpotik etorritako lagunak ere».

Hirugarren urtea izanik, eskarmen-tu pixka bat izaten ari direla dio Leonek, eta horrek antolakuntza aldetik kudeaketan lagundu egiten duela. «Pixka bat lasaiago ibili gara zentzu horretan. Aurreko urtekoa hobetzen saiatu gara», esan du Leonek, eta nabarmendu du «jendeak gustura hartzen duen eguna» dela. «Lana suposatzen du, baina gero bere fruituak ematen ditu».

Tolosalderako ospitale publikoa aldarrikatuko du TOPAk, Eibarren

Osakidetza 31 milioi euroko inbertsioa egin du Eibarren ospitale berri bat eraikitzeko

Erredakzioa

Tolosalde Osasun Publikoaren Alde plataformak Eibarko ospitale publiko berriaren aurrean elkarretaratzea egingo du bihar, Tolosalderako ospitale publiko bat aldarrikatzeko. 09:00etan jarri dute hitzordua TOPAkoek. Ordu horretan Tolosako tren estazioan gelditu dira, eta kotxez joango dira Eibarrera, protesta egitera, eskualderako ospitale publikoa eskatuz.

Izan ere, urrian inauguratu zuten Eibarko ospitale publiko berria, Iñigo Urkullu lehendakariaren eta Jon Dardon Osasun sailburuaren presentziarekin. 31 milioi euroko inbertsioa egin zuen Osakidetza erietxe berria eraikitzeko, eta Debabarreneko 75.000 herritarrei ematen die zerbitzua, hau da, Eibar, Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba, Mutriku, Mallabia eta Ermuko biztanleei. Hala ere, erreferentziazko ospitalea Mendarokoa izango da. Eibarren, paziente kronikoak hartuko dituzte gehienbat.

07

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Herri Kiroletatik...

Txapeldun berria eta igandean Zizurkilera

Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa jokatu zuten igandean, Laukizen, Bizkaian. Aurrez bagenekien lehia polita ikusteko osagai guztiak zeudela: Aimar Irigoien faborito nagusia, azken urteetako txapelduna; Inhar Urruzuno ere

hor zebilen, aurrera sartuta eta Irigoieni irabazteko gai zela erakutsita, Alegian gainera; eta Mikel Lopetegik *Urra*. Hiru horien artean txapela jokoan zegoela esan genuen, eta horrela gertatu zen. Mikel Lopetegik *Urra*-k

irabazi zuen, eta nola gainera. Alde batetik, zarauztarrak Euskal Herriko txapela irabazten duen lehen aldia da, nahiz eta duela bi urte ez zen urrutibili. Orduan bigarren postuan geratu zen. Iaz, ez zuen parte hartzerik izan. Bestetik, Aimar Irigoienek zuen marka hautsi zuen *Urra*-k, 150 kilo gehiago jaso-ta. Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketako marka berria ondo-orengo da:

13. 512,5 kilo. Errezilgoa bigarren geratu zen 12.725 kilorekin, eta hiruugarren Inhar Urruzuno. Hodei Iruretagoiena *Izeta IV*.a laugarren postuan geratu zen.

Mikel Lopetegik udan sasoiko zegoela erakutsi zuen, besteak beste, Igeldoko Harria, Ergobiko Txapelketa, Aiakoa edo Elgoibarkoa irabazita. Izetatarren eskolan aritzen da *Urra*, eta *Izeta II*.ak esana zidan oso ondo zegoela igandera-ko. Uda amaieran pixka bat jaitsi zela, baina berriro oso ondo zego-



la, eta dena hutsik gabe eginez gero zerbait polita egiteko aukera zegoela. Eta marka ikusita horrela izan dela esan beharko da. Izugarritzko lana egin zuen 21 urteko Mikel Lopetegik Laukizen.

Bestalde, Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa abenduaren 22an izango dela esan beharra dago, larunbatez, Asteasun. Aimar Irigoienek han izango du arantza ateratzeko aukera. Txapelketa 22:00etan izango da, eta Azpeitian hasitako bidetik, zerbait berezia egiten saiatuko gara. Ea orduan atera zen bezain ondo ateratzen den.

Zizurkilen Urrezko Kopa, etzi

Egursport-ek antolatzen duen Urrezko Koparen kanporaketa berri bat jokatuko dute asteburuan. Aizkolariez ari gara, nahiz eta jaialdian harri-jasotzaileak ere lehian ariko diren. Jardunaldi berri hau etxean bertan izango dugu, hau da, Zizurkilen. Intxaur pilotalekuan, 12:00etan hasita, Jon Irazu bertako semeak Xabier Orbegozi *Arria V*.aren aurka neurtuko ditu indarrak. Aizkolarari bakoitzak 12 kanaerdiko ebaki beharko ditu. Jon Irazu nola dagoen ikusi beharko da, ondo

egonez gero Xabier Orbegozi aurre egiteko gai delako. *Arria V*.a, berriz, joan zen larunbatean ikusi genuen Loiu. Iker Vicente eta Aitzol Atutxaren aurka aritu zen aizkoran. Orduan 14 kanaerdiko ebaki behar izan zituzten, eta Iker Vicente izan zen azkarrena, Aitzol Atutxaren aurretik. Oraingoan bi enbor gutxiago izango dituzte aizkolariek. Esan beharra dago, txapelketa horren finala abenduaren 31n jokatuko dutela, Asteasun.

Lehen esan bezala, Zizurkilen harri-jasotzaileak ere izango dira. Horiek Gabonetako Harri-jasotzaile Txapelketa jokatzen ari dira. Intxaur pilotalekuan Zelai V.a eta Sebastian Martikorena lapurtarra ariko dira lehian. 100 kiloko zilindroarekin, bolarekin eta kubikoarekin 3na minutuko saioak izango dituzte. Jasoaldi gehien lortzen dituenak aurrera egingo du. Azpimarrazekoa da, lana ez dela brome-takoa, hiru minutuko saiotan aritzea lan gogorra da. Finalean, adibidez, bi minutuko txandak izango dituzte harri-jasotzaileak. Igandean, beraz, herri kirol jaialdi ederra antolatu dute Zizurkilen, herri kirol munduaz gozatu nahi duenarentzat, Intxaur pilotalekuan, 12:00etatik aurrera.



JOXE ANJEL SARASOLA

TALDE NAGUSIAK

LASKORAINIKASTOLA

Auzoak Zierbena

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Larunbatean, 18:00etan, Tolosako
Usabal Kiroldegian.

Santurtzi

LAUBURUIBARRA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
Larunbatean, 16:30ean, Santurtziko
udal kiroldegian.

LAUBURUIBARRA

Ordizia

Areto futbola. Gipuzkoako Seniorrak.
Ibarrako Belabieta kiroldegian,
ostiralean, 20:00etan.

Eskoriatza

ANOETA FT

Areto futbola. Gipuzkoako Seniorrak.
Eskoriatzan, larunbatean, 20:00etan.

Garoa Taberna

SAMANIEGO ORIXE

Areto futbola. Gipuzkoako Seniorrak.
Larunbatean, 10:00etan, Lasarten.

Aranbizkarra

TOLOBOLEI BIDEBIDE

Boleibola. Bigarren Maila.
Larunbata, 16:30ean, Gasteizen.

TOLOSA CF

Anaitasuna

Futbola. Neskak. Euskal Liga.
Larunbatean, 15:45ean, Tolosako
Usabalen.

TOLOSA CF

Bergara

Futbola. Mutilak. Erregional Ohorezko

Maila. Larunbatean, 16:30ean, Berazubi
futbol zelaian.

Dunboa Eguzki

BILLABONA KE

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. Larunbata,
15:30ean, Irunen.

Hernani

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Mutilak. Erregional
Preferentea. Larunbata,
18:00etan, Hernaniko Zubipe futbol
zelaian.

DANENA KE

INTXURRE KKE

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala.
Larunbata, 17:30ean, Zizurkilgo
Elbarrena futbol zelaian.

Real Sociedad 'B'

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Neskak. Ohorezko
Erregional Maila. Larunbatean,
11:00etan, Donostiako Zubietako
futbol zelaian.

INTXURRE KKE

Bergara

Futbola. Neskak. Gorengo Maila.
Larunbatean, 18:00etan, Alegiako Elorri
futbol zelaian.

BM Romo Indupime

TOLOSA CF

Eskubaloia. Lehen Nazional Maila.
Larunbatean, 18:00etan, Getxoko
Gobela kiroldegian.

Ulacia Grupo ZKE

TAKE REDLINE MEKANIKA

Saskibaloia. Mutilak. Lehen Maila.
Igandea, 18:00etan, Zarauzko
Aritzatalde kiroldegian.

Eskoriatza

TAKE

Saskibaloia. Neskak. Gipuzkoako
Seniorrak. Ostiralean, 20:15ean,
Eskoriatzan.

LARUNBATA AZAROAK 17

BERROBI

ION ANDERIZAGIRRE XXVII.

FRONTENIS TXAPELKETA

09:00etatik 18:00etara. Frontenis
partidak frontoian.

IKAZTEGIETA

XXVIII. HERRIKROSA

16:15. Herriko haurren lasterketa.
16:30. 10 kilometroko krosa.

IGANDEA AZAROAK 18

BERROBI

ION ANDERIZAGIRRE XXVII.

FRONTENIS TXAPELKETA

10:00etatik 17:15era. Frontenis partidak
frontoian.

IRUÑA

NAFARROA ARENA

17:00. Jokin Altuna / Joseba Ezkurdia. Lau
eta erdiko txapelketaren finala.

ZIZURKIL

12:00. Herri kirol proba.

**BILLABONA
FUTBOL
KIROL ELKARTEA**
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 17 - 10:00
Kadete 1. maila
BILLABONA FKE "B" - EUSKALDUNA S.D.

Larunbata, 17 - 12:00
Infantil txiki maila
BILLABONA FKE - AÑORGA K.K.E.

Larunbata, 17 - 17:00
Jubenil 1. maila
BILLABONA FKE - USURBIL F.T.

Igandea, 18
Goiz guztian zehar
BILLABONA FUTBOL ESKOLA

Igandea, 18 - 16:30
ohorezko jubeniil maila
BILLABONA FKE - URKI C.D.

**Sarrailegintza
KEY-LAN**

Nafarroa etorb. 13 behe • **TOLOSA**
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313



Pianoa

Ukrainatik Villabonara iritsi ziren. Iryna neska-toak pianoa jotzen du. Bere anaiak berriz biolina. Musika zaletasuna zainetan daramate eta lehen momentutik eman zuten izena herriko musika eskolan. Ama etxez etxe ibiltzen da garbiketa lanak egiten eta aita berriz obraz obra harginarenak egiten.

Ez da erraza hilabete bukaerara iristea. Pixkanaka ari dira gurera egiten. Amak aipatu dizu laster batean pianoa erosiko diotela alabari. Kultura musikalaren garrantzia azpimarratu dizu, beraientzat funtsezkoa dela Ukrainan zein Euskal Herrian. Kotxea edo pianoa erosi, hori izan dute dile-



AINHOA ELIZONDO
ATARIA IRRATIA 107.6 FM

ma. Automobilik ez dute baina lehentasuna eman diote musika tresna erosteari. Konbentzituta esan dizu, zalantza eta penarik gabe.

Eta zerbait mugitu zaizu barruan. Konbentzimendu berbera nahi zenukeelako eskualdeko udaletxeengan, kulturen dirua gastatzea inbertsio on bat dela sinistuta. Kultura garestia denaren aitzakiaz nazkatuta. Lehentasun berbera Eusko Jaurlaritza-erangan musika eskolei benetan behar duten dirua helarazteko, eta ez sos txikiak.

Zenbat aurreiritzi ditugun gure herrietara iristen ari diren pertsonekin, eta zenbat dugun ikasteko elkarrekin.

2 mó graduatu
erreflexuen
aurkako
lenteekin

99€

mó



ARRASATE • BERGARA • BEASAIN
DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA
IRUN • LASARTE-ORIA • ORDIZIA

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da heste eskaintza batzuetan erabili.

*Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira*

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com





KATILUA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA _____

8 EURO

4 EURO

10 EURO

ATARIKIDEAK

10 EURO

6 EURO

14 EURO

BESTIAK

ESKURATU ZUREA ATARIAREN BULEGOAN
SAN ESTEBAN 20, TOLOSA

Ugal aparatu femeninoaz

Aipatu behar den lehendabiziko gauza da sexologian dena ez dela zuria edo beltza, grisak ere badaudela. Pertsona bakoitzak ezaugarri maskulinoagoak edo femeninoagoak izan ditzake, eta ezaugarri horiek ez daukate zertan gizon edo emakume baten gorputz bati lotuta egon behar. Hau da, ezaugarri oso femeninoa izan dezake gizon sentitzen den pertsona batek edo alderantziz. Horregatik hitz egiten dut ugal aparatu femeninoaz, eta emakumeen ugal aparatuz.

Baina zer datorkigu burura ugal aparatu femeninoa esatean? Ugal aparatuz hitz egiterakoan, kanpo eta barne ugal aparatuez hitz egin behar dugu. Barne ugal aparatuz hitz egiterakoan, umetokiarekin hasiko gara. Kopa itxura du eta biologikoki egitura horren ardura da etorkizunean haur bat jaso eta hazteko leku aproposa prestatzea. Betikoa, norberak erabakiko du umetoki horri erabilera hori eman nahi dion ahal ez, baina haurrak izan ala ez, beste funtzio bat ere badu, eta hilekoarekin du zerikusia.

Hilekoa haurdunaldiarekin bat egiten duen prozesua da. Umetokian gora joaten bagara, falopioaren tronpan barrena, umetokiaren alde bakoitzean bi obulutegi aurkituko ditugu. Obulutegi horien funtzioa zein da? Obuluak sortzeko zelula batzuk hartzea. Horregatik entzungo zenuten emakume bakoitzak bizitza osoan zehar askatuko dituen obulu guztiak dituela jada. Gorputzaren lana da aurreobulu horiek obulu bihurtzea eta hilean behin askatzen joatea. Askatze horretan ebolutiboki eta biologikoki espero dena da ernalketa bat gertatzea eta espermatozoide bat obulu horrekin topatzea, ondoren umetoki horretan kokatu eta hazte-

ko. Zer da hilekoa, beraz? Umetokia 28 egunero 'ohe goxo' bihurtzea. Horretarako bere hormak odolez betetzen ditu eta bertan oso ingurune egokia sortzen da ernaldutako obulu bat iritsiz gero, itsatsi eta pixkanaka hazten joateko. Zer gertatzen da? Gorputzak berehala dakiela obulu bat noiz izan den ernaldua eta noiz ez, eta unea iristen denean obulu hori falopioaren tronpan barrena dola umetokira iristeko. Obulua ez bada ernaldu gorputzak horma guzti horiek hustu egiten ditu, eta ondorioz sortzen den material horren erorketa -odola eta abar- da hilekoa.

Obulutegiak dira emakume baten gorputza menopausiara bitarte femenino mantentzeko ardura dutenak

Emakume askok pentsatu dezakete haurrak izateko gogorik edo asmorik ez badute, zertarako izan behar ote duten hilekoa. Baina kontuan hartu behar da obulutegien lan garrantzitsuetako bat dela estrogenoen eta orokorrean, sexu hormonaren sorrera eta gorputzaren zeharretako banaketa. Beraiek arduratzen dira garunera eta gorputzeko beste atal batzuetara seinaleak bidaltzeaz; hormona zehatz batzuk noiz behar

diren adierazten dute, nolabait. Horrela daki gorputzak noiz hasi behar duen obuluen ziklo hori, hau da, noiz izan behar duen emakume batek lehen hilekoa edo menarkia. Femeninotze prozesu hori irekitzeko garaia noiz iristen den daki, beraz. Izan ere,

obuluak arduratzen dira menopausiara arte gorputz hori femenino mantentzeaz; hau da, nerabezarotik emakume heldu izatera bitarte horretan emakumeen aldakak zabalitzen dira, bularrak hazten dira, ilea



ateratzen da zenbait tokitan... Horiek guztiak ezaugarri sexualak dira, gorputz femenino baten ezaugarri sexualak. Hori gertatzeko hormona batzuk gorputzean zehar bidaiatzen dute eta obulutegiak dira horretaz arduratzen direnak. Zer gertatzen da menopausia iristen denean? Seinale horiek ez direla horren indartsuak eta gorputzak aldaketa batzuk naba-rituko dituela; lehen estrogeno pila bat jasotzen zuen eta orain ez horrenbeste, eta orduan hasten da emakumeen gorputza maskulinizatzen. Ohikoa da 60 urteko emakume bat ikustea ez duena jada horren gorputz femeninoa, gitarra formaduna edo bibote gehiago duela...

Barne ugal aparatua izango litza-teke hori, eta justu erdibidean, kanpo ugal aparatua baino lehen, bagina dago. Umetokiaren azpian horma txiki moduko bat dago, umetokiaren sarrera dena. Jendeak uste du oso malgua eta hauskorra dela, baina baginaren amaiera eta umetokiaren hasiera horma horrek banatzen du eta badu zulo txiki bat, nondik atera-



**JON IMANOL
ETXABÉ
SEXOLOGO**



tzen den hilekoaren odola, baina horma hori sendoa da.

Hortik baginara goaz. Bagina espazio birtual bat da. Bagina bat ez da bagina barruan ezer ez badago. Bagina bat berez azal dezentez osatuta dago, baina bagina sortzen den barrunbe hori da. Sortzen den zulo hori. Modu erlaxatuan beraz, bagina hori ez da bagina. Baginak duen ezaugarri nagusia da lehen herena sentsiblea dela eta datozen bi herenak, umetokirantz doazenak, ez direla sentsibleak. Egiten den edozer gauzetarako kontuan hartu behar da hori; tanpoi bat sartzeko, kopa bat jartzeko, sarketa baterako...

Baginak duen beste ezaugarri bat da gorputzeko atal hezeenean dagoela, eta bere funtzioetako bat umetokiko segurtasuna bermatzea, horregatik oso ingurune azidoa da, bakteriak-eta hiltzeko dago prestatua eta fluxua ere badago. Fluxua bagina lubrikatzeko eta babesteko dagoen likido modukoa da. Gorputzerako sARBIDE zuzena da eta beraz, zaindu egin behar da. Infekzioak ekiditeko

du ezaugarri hori. Kitzikapena gertatzen denean ere fluxua sortzen da. Fluxuak asko esaten du emakumearen egoeraz. Norberak bere fluxua ezagutu beharko luke, asko lagunduko digu osasuntsu dagoen ala ez jakiteko. Garden samarra edo zurikara bada ondo dago, baina oso-oso zuria bada, horitzen bada edo zer esanik ez, berdetzen bada, zerbait gaizki doa. Hilekoa izateko garaia iristen denean ere fluxua arroxagoa izan daiteke eta horrek lehen odol tantak hasi direla esan nahiko du. Adinak aurrera egitean fluxua gutxitu daiteke. Horren aurrean esan behar dut badaudela produktuak lubrikatzeko -telebistan iragartzen dituzte-, baina kontuz, ez baitira lubrikatzaile hutsak, anestesia ere badute, sarketak errazten ditu, beraz, baina zeinen truke? Lubrikazioa errazteko modu asko daude produktu horietara jo gabe, koko olioia, esaterako.

Kanporantz goaz, bagina atzean utziz, eta ginekologoarenean ikusten den irudi tipikoarekin topatuko gara; hori guztia da alua, gaztelerazko *vulva*. Baginatik aterata ezpainen txikiak ditugu lehenik, eta ezpainen handiak, gero. Ezpainen handi horien inguruan ilea dago, gorantz joan eta Venusen mendiraino iritsiko gara, eta hortik pubiseraino. Ilea: beste kontu serio bat. Zertarako dago hori ilea? Barrera natural bat da, zerbaitetarako dago dagoen tokian. Bakteriak, zikinkeria eta abar, ahalik eta kanpoen mantentzeko da ilea.

Mutilek orokorrean, uste dute emakumeek alutik egiten dutela pixa, baina emakumeek badute beste zulotxo bat: uretra. Horrekin batera atzean, uzkia dago, atzean.

Bukatzeko, klitoria ere aipatu behar dut, ez badirudi ere, ugal aparatuen parte baita. Klitoriak ez du ugalketa funtzio biologikorik, baina badu bere garrantzia eta zerikusia. Klitoria ugalketa bermatzeko sortu

den armarik potenteena da. Eboluzioak sortu duen gauzarik inteligen-teena da. Gorputz atal horren kitzikapenak plazer handia ematen du eta ugalketa gauzatzeko gogoa pizten du. Zakila eta klitoria berez, leku beretik datoz, egitura beretik. Horregatik esaten da behar bada, sortu, denak sortzen garela emakume, eta gero, umetokian banatu eta gizon edo emakume egiten garela. Gizonen klitoria zakil mokoa da. Klitoria

Bagina espazio birtual bat da. Bagina bat ez da bagina, barruan ezer ez badago

Klitoria eboluzioak ugalketa bermatzeko sortu duen armarik potenteena da

ez da kanpoaldean ikusten den gauza txikitxo hori bakarrik, barrura ere badoa. Iraulitako Y forma du. Klitoria beraz, uste dena baino handiagoa da, eta bere egitura horrekin besarkatzen du baginaren lehen zatia. Lehen hitz egiten zen orgasmo klitoriarraz eta baginalaz, baina ikusi da gauza bera direla, kontua da klitoria- ren zein zonalde kitzikatzen den. Horrekin lortu du eboluzioak sarke- ta prozesua atsegina izatea eta espe- ziaren jarraipena bermatzea. Klito- ria altxor bat, asko zaindu beharre- koa nire ustez, emakumeek zorte handia dute.



Entzun ugal apa-
ratu femeninoari
buruzko Mingaina
Txulora saioa:
www.ataria.eus

Hurrengo saioa: Gaur 21:00eta-
tik aurrera eta asteartean ordu
berean, 107.6 fm dialean edota
ataria.eus helbidean konplexuei
buruz ariko da Jon Imanol EtXabe
Mingaina Txulora saioan.

AHOZKOTASUNA

ALTXOR BIHURTZEN

Bertsozale Elkartearen Mintzola Ahozko Lantegiaren eraikinaren barruan dago Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ) Villabonako Subijana Etxean. 1991n sortu zen, eta ordutik, bertsolaritzaren eta ahozkotasunaren bueltan sortu den dokumentazio guztia biltzen ari dira, ondare hori herritar guztien eskura jarriz.

Ane Urkola

Bertsolaritza plazako edo txapelketetako bertso jardunarekin lotzen da askotan, baina bertsoaren bidea ez da oholatza gainean amaitzen. Mikrofonoetatik kanpora, egitasmo ugari ari dira bertsogintzaren bueltan lanean; horien artean dago Xenpelar Dokumentazioa Zentroa (XDZ). Benetako altxorra dago Subijana Etxeko liburutegian eta biltegian, eta hori erakutsita hasi da Oihana Aranburu (1975, Hondarribia) koordinatzailea egitasmoaren berri ematen.

Hasiera-hasieratik oso garrantzitsua izan da Bertsozale Elkartearentzat dokumentazio zentroa. Horrela baieztatu du Aranburuk: «Orduko hainbat bertsolariren eta bertsozaleen kolektiboek sortu zuten elkartearen kolektiboek sortu zuten elkartearen 1986. urtean, eta garai horretan elkartearen muinean zegoen jendeak estrategikotzat jo zuen dokumentazioa –arxiboa deitzen zioten orduan–. Jexux

Murua eta Koldo Tapia hasi ziren zeregin horretan, eta, ordutik, kolektibo horren apustu ekonomiko eta estrategiko nagusienetakoa izan da».

Bertsozale Elkartea sortu eta urte gutxira, beka deialdi bat jarri zuen martxan. Arantza Mariskalek irabazi zuen, eta berak egin zuen proposamena. Hutsetik hasi behar izan zuten guztia egiten: «Zein dokumentuen bidez jasotzen da bertsolaritza? Zer gorde behar da? Eta zer ez? Nola antolatu eta tratatu behar da? Hori guztia idatzi, eta 1991n sortu zuten XDZ».

Gaur egun, bost pertsonak osatzen dute lan-taldea. Nere Erkiaga eta Oihana Aranburu kanpo-harremanez eta lan-taldearen koordinazioaz arduratzen dira. Horretaz gain, Erkiaga dedikatzen da informatikariekin batera barruko tripak diseinatzeaz. Aranburu, berriz, ikus-entzunezko materialaren tratamendu, antolaketa eta lanetan aritzen da. Itsaso Noyak liburutegiaren martxa darama, eta Irati Zalduak prentsarena: «Egunkari, herri

aldizkari edo astekarietan, bertsolaritzari buruz agertzen diren artikuluko mamitsuak jaso eta datu basean jasotzen ditu», azaldu du Aranburuk. Azkenik, Olatz Amundarainek argazki bilduma kudeatzen du: argazki negatiboak, diapositibetan daudenak, euskarri digitalean jaso eta biltzen ditu.

Helburua: dokumentazioa bildu, jaso eta eskaini

Dokumentazio zentroaren helburu nagusia da bertsolaritzaren bueltan sortzen den dokumentazioa jaso, antolatu eta herritarrei eskaintzea: «Etengabe jasotzen dugu dokumentazioa, ondare zabal hori geroratzeko asmoz. Biltegian godetzeaz gain, antolatu eta kontsultagarri jartzen dugu».

Lan horretan, ezinbestekotzat jotzen dute beste eragileekin duten harremana: «Oso garrantzitsua izan da Euskal Herriko hainbat dinamikekin harremanak egitea. Euskal Herri mailako proiektua da, eta guk ez daukagu ahalmenik toki guztietara iristeko,



dena grabatu eta jasotzeko». Argi du, ordea, beren helburua ez dela den-dena biltzea: «Guk nahi duguna da kalitatezko lagin bat jaso eta hori eskaintzea, eta hori egiteko jendearen laguntza behar dugu. Guk egiten duguna da bilketa hori koordinatu, harremanetan jarri eta jasotzen dugun dokumentazio hori guztia antolatu eta eskaini».

Horretarako, bertsolaritza mugimenduko beste hainbat elkarterekin elkarlanean aritzen dira, eta beraiek ere baliatzen dute bertan jasotako dokumentazio guztia: «Elkartearen bueltako dinamika guztiek hemendik jaso dezakete dokumentazioa, eta informazio hori ondo antolatzeak hainbat egitasmo martxan jartzeko erraztasuna eta arintasuna ematen die».

Fitxategi horiek guztiak antolatzea eta biltzea ez da lan hutsala, ordea: «2000. urtetik aurrera, fitxategi guztiak digitalizatu eta fitxategi guztiak karpetetan antolatzen ditugu. Karpeta horiek datu base batean jasotzen ditugu, eta horrek sekulako hezurdura eskatzen du», zehaztu du. Dokumentazio lan horretan arlo asko hartu behar dira kontuan, eta beste hainbat esparrutan bezala, beraiek ere gertutik jarraitzen dute teknologiaren bilakaera: «Fitxategiak jasotzerakoan ezinbeste-

koa da formatuen jarraipena egitea; orain mp3 formatuak funtzionatzen du, baina gerta daiteke urte batzuk barru formatu hori ez irakurtzea eta milaka fitxategi beste formatu batera emigratu behar izatea», adierazi du Aranburuk.

Audioekin ez ezik, bideoekin zein argazkiekin ere gauza bera gertatzen zaie: «Badaude formatu batzuk apenas erabiltzen direnak, edo konpresio batzuk software berezi batzuk behar dituztenak irakurri ahal izateko. Eguneratuta egon behar dugu etengabe, baina, era berean, iraganean erabiltzen ziren formatuak (DVD-C, Mini disc, VSG....) irakurtzeko eta gaur egungo formatu estandar batera pasatzeko tresnak ere behar ditugu», azpimarratu du Aranburuk. Horrek mantenu lan handia eskatzen du, segurtasun kopiak dituzte eta horrelako zentro batean egoteak ziurtasuna ematen du dokumentazioa ondo egongo dela –biltegiaren tenperatura baxua da, ez dago tenperatura aldaketa handirik–, antolatuta dagoela edota bilaketak erraz egin daitezkeela: «Pertsonen informazio guztia elkar lotuta dago, eta informazio osoa jaso daiteke bertan».

Audio eta grabazioez gain, azken ur-

«Dokumentazio zentroaren helburu nagusia da bertsolaritzaren bueltan sortzen den dokumentazioa jaso, antolatu eta herritarrei eskaintzea»



teetako argazkiak, kartelak, oholten atzeko oihalak, eta oroigarriak ere badaude bertan. Azken urteetako ondare guztia, ondo antolatuta, kodifikatuta eta katalogatuta.

Ikerkuntzaren garrantzia

Ez dira gutxi dokumentazio horren guztiaren onuradunak: bertsolariak, bertso eskolako irakasleak, herritarak, eta, baita ikertzaileak ere. Oso garrantzitsutzat jotzen dute hori: «Azken batean, ikerkuntza ezagutzaren garapena da. Zirrikitu eta ikuspuntu asko dauzka bertso jardun batek, eta bertsolaritzak ere harreman zuzena dauka beste hainbat gairekin. Ez dokumentazio ikuspegitik soilik, baita jakintzaren eta ezagutzaren ikuspegitik ere, eta horren zabalkunderako oso garrantzitsua da egindako horren garrantzia eta balioa ezagutzea», azpimarratu du Aranburuk.

Bertsoen bidez testuinguru bakoitzarekin lotutako gauza ugari iker daitezke Aranburuk azpimarratzen duenez: «Bertsoen bidez, esaterako, garai bateko egoera sozioekonomikoa azter daiteke, historia ofizialak esandakoaz gain, herri kulturak historiaren beste begiratu bat jasotzen lagundu deza-

ke». Atzera begiratuta sekulako balioa dauka horrek, baina etorkizunera begira ere ate asko irekitzen dituela nabarmendu du Aranburuk: «Gaur egungo bertsolaritzak ere ertz asko ditu, eta badago zer ikertu. Oinarria badago, eta jendea ari da pixkanaka-pixkanaka».

Bide horretan, Aranburuk nabarmendu du Bertsozale Elkartek azken urteetan egin duen lana: «Azken urteetan, Mintzola Ikertegiak ikerketa sustatzeko lan handia egin du, eta gaur egun, ikerlari ugari ari dira bertsolaritza eta ahozketasuna ikertzen. Beraienezako dokumentazio hori eskuragarri izatea ezinbestekoa da. Ikerketa horiek egiten dituztenean, hona ekartzen dituzte eta guk egindako bilduma elikatzen dute», zehaztu du.

Bertsolaritzatik harago, ahozketasuna ardatz

Azken urteetan, egitasmoari oinarria jartzen aritu dira: datu-baseak, zerbitzua, diseinua, material bilketa, antolaketa eta dokumentazioa eskaintzeko irizpideak fintzen. Oinarriak finkatu dituzte, eta beren egitekoa ez da bertsolaritzaren dokumentazio lanera mugatzen. Ahozketasuna ardatz har-

tuta, Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak antolatzen dituzte eta Kulturarteko Mapa ere eskuragarri jarri dute, besteak beste. «Euskarazko dokumentazioaren egoerak kezkatuta hasi ginen jardunaldiak antolatzen 2014. urtean. Egia da badaudela hainbat erakunde (liburutegietako profesionalak, dokumentazioko profesionalak, kantuzale elkarteak...) euskarazko jardunak dokumentatzen aritzen direnak, baina harreman gutxi daukagu elkarrekin, eta jardunaldi horien helburua da elkar ezagutzea, ditugun kezak ezagutzea eta horien inguruan hausnartzea», azaldu du.

Bestalde, 1998an, Bertsozale Elkartek ikusi zuen Euskal Herriaz gain, tradiziozko jardun inprobisatuak munduko beste hainbat tokitan ere bazeudela. 2003an Nazioarteko Topaketak antolatu zituen Bertsozale Elkartek eta oso harreman «interesgarria» eta «emankorra» sortu zen. Topaketa horiez gain, beste pauso bat ematea erabaki zuten: «2016an beste jardunaldi batzuk antolatzeko proposamena egin zen, baina dokumentazio ikuspegitik zerbait iraunkorragoa egin nahi genuen. Datu base bat mar txan jartzeko proposamena egin ge-

nuen eta bertan jartzen dugu nazioar-tean dauden hainbat jardunei buruzko informazioa», adierazi du Aranburuk. Beren helburua ez da hori guztia hornitzea, lan tresna bat eskaintzea baizik: «Gure helburua abiapuntu bat eskaintzea da eta bakoitzak bere tokitik mapa elikatzea: bibliografia, ikerketak, ezaugarriak, informazioa, etab. Momentuz 100 bat adierazpide daude, eta edonork elika dezake mapa».

Azken urteetan, ahalik eta zerbitzurik osatuena eskaintzeko lan handia egin dute, baina etorkizunean ere ez daukate geldirik egoteko asmorik: «Momentu honetan, atal gehienak daude sarean, baina argazkiak falta zaizkigu, esaterako. Gaur egun, herritarrek eskatzen dutena da dena interneten egotea, eta ari gara poliki-poliki elikatzen. Proiektu guztia hor egotea nahi dugu, gutxienez lagintxo bat», azaldu du Oihana Aranburuk.

Herritarrek animatu ditu biltegia hornitzen laguntzera: «Herritarrek beren ordenagailuan dituzten dokumentu horiek bilduma osatu dezakete, eta herritar guztiek erabili». Urte hauetan guztietan, herritarren babesa sentitu dute baina proiektua handitzen jarraitzea da euren nahia: «Ondare hori ezagutzen dutenek badute kezka hori, eta ekartzen dizkigute grabazioak. Oso lan txikiak dira, ia ikusezinak, baina urte askoren buruan ikusi dugu zein forma hartu duen, eta aurrera begira ere horretan jarraitzeko indarra ematen digu».

Argi dute merezi duela lan horrek, eta bidea egiten jarraitu nahi dute: «Gero eta proiektu ezagunagoa eta bi-ziagoa da». Duela 27 urte hasi zen bidea, eta ahozkotasanaren eta bertsolaritzaren ondarea elikatu nahi duenak irekita ditu Villabonako Subijana Etxeko ateak: «Etorri, ikusi eta kontsultatu». Jarrai dezala ahozkotasanaren eta bertsolaritzaren ondareak handitzen eta osatzen.





«GIZARTEA NOLA ALDATZEN DEN IKUSTEKO ERE BALIO DU»

IMANOL ARTOLA ARRETXE 'FELIX'
BERTSOZALEA

Amezketarrak bertsoaren inguruko hainbat esparru ukitzen ditu, eta berarentzat «beste aro batean sartu gara, eta gaur egun ezinbestekoa da horrelako erreminta bat izatea».

A. Urkola

Imanol Artola Arretxe *Felix* (Amezketarra, 1989) bertsoaren bueltan dabil; Harituz Bertsozale Taldeko kidea izateaz gain, gai-jartzailea eta ATARIA IRRATIAKO (*H)ari naizela* saioko esataria ere bada. Bertsolaritzaren mugimenduan sartu zenean ezagutu zuen Xenpelar Dokumentazio Zentroa, eta gaur egun ezinbesteko erreminta du lanerako.

Zer da zuretzat Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ) eta zertarako erabiltzen duzu?

Lanerako erreminta da. Asteroko irratisaioan erabiltzen ditut Xenpelarrekin aurreko hilabete edo asteburuan jaso dituen audioak. Norbait elkarrizketatu behar dudanean, pertsona horri buruzko informazioa lortzeko ere erabiltzen dut: izan bere biografia, izan Xenpelarren publikoarentzat eskuragarri

dauden bertso horietatik zein erabil ditzakedan ikusteko. Asteroko bertso agenda errebasatzeko ere erabiltzen dut.

Eta gai-jartzaile moduan?

Gauzak ikertu nahi izaten ditudanean erabiltzen dut. Nire gai-jartzaile estilo edo profila definitzen aritu izan naizenean, saioretako gaiak entzun eta zera pentsatzen dut: «Nik zer ekarpen egin diezaioket honi? Plazan zer eginda orain arte?». Horrelako kontsultak egiteko oso erabilgarria da. Era berean, bertsolari berriren bat oholtzakide izan dudanean, XDZko bertsoak erabili izan ditut bere punturik gorenak edo bertsokera ikusteko.

Bertso dinamika ezberdinen arteko elkarlana ezinbestekoa izango da ezta?

Harituz, TOLOSALDEKO ATARIA eta XDZren arteko hitzarmen bat daukagu.

Niri eskuragarri jartzen dizkirate berriak jasotzen dituzten audioak, eta guk gure inguruan grabatzen ditugun saioak Xenpelarrera bidaltzen ditugu. Aurtun, 30 bat saio grabatu eta Xenpelarri eman dizkiogu. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu hori. Adibidez, Mikela Elizegi –Pello Errotaren alaba– ezaguna egiten ari da, baina ez daukagu bere bertsorik. Hori ezin da gertatu etorkizunean. Harituz Bertsozale Taldea gaur egun existitzen da, baina agian hemendik hogeitaz urtera ez da existituko. Datu base horiek funtsezkoak dira talde horien berri izateko. Harituz kasuan, oso garrantzitsua da beren herri inguruan kantuan ibiltzen diren bertsolari horien jarduna erregistratuta egotea.

Zein garrantzia ematen diozu zuk?

Niri asko gustatzen zait ikertzea, eta gai jartzaile moduan, oso garrantzitsua izan da gaiak nola aldatzen joan diren ikusteko; txapelketan bakarrik ez, bestela ere bai. Datu base horiei esker dakigu zein gai jartzen ziren duela urte batzuk, eta horrekin ikusten dugu garaia nola aldatzen diren eta gizartearen balioak zeintzuk diren. Horretarako ere balio du: gizartea nola aldatzen den ikusteko. Jende askori ez zaio irudituko gauza horiek gordetzeak zein balio duen gaur egun, baina oso garrantzitsua da. Norbaitek zerbait ikertu nahiko balu hemendik urte batzuetara, informazioa non bilatu jakiteak azaldu ezina den balioa dauka.

Edozein ikerketa egiteko, alderakea bat egin behar da askotan. Gaur egungo dokumentuak bila ditzakegu, baina Xenpelarren dena hor daukagu, eta erraztu egiten digu lan hori.

XDZk zer nolako garrantzia du bertsolaritzak indartsu jarrai dezan?

Ezinbestekoa da. Gaur egun, ez gara telebistarekin bakarrik bizi. Nik uste dut bertsoaren historian gehien erreproduzitu diren bertsoak direla Maialen [Lujanbiok] Irunen abestu zituen hiru bertsoak, eta Maddalen [Arzallusek] Puigdemonti buruz egin zuen agurra. Beste aro batean sartu gara, eta gaur egun ezinbestekoa da horrelako erreminta bat izatea. Datozen urteetan, komunikazioa eta hedapena giltzetako batzuk izango dira.



«USTE DUT EZ GARELA KONTZIENTE ZEIN ALTXOR DAUKAGUN»

OIHANA IGUARAN
BERTSOLARIA

Oihana Iguaran bertsolariaren ustez herritar askok urruti sentitzen du Xenpelar Dokumentazio Zentroa, eta berak gerturatzen ditu herritarrak

A. Urkola

Oihana Iguaranek (1991, Amasa-Villabona) bertsogintzan jarduten du eta hainbat arlotarako erabiltzen du Xenpelar Dokumentazio Zentroko (XDZ) dokumentazioa: bertsolaria eta bertso-eskolako irakaslea da, eta gaur egun, ikertzen dihardu. Bertsogintzaz harago, ahozketasun osoa lantzen duen egitasmozat dauka, eta bada berari buruz hitz egitean etengabe errepikatzen duen hitz bat: «Altxorra».

Zer da XDZ zuretzat?

Altxor bat da; batetik, oso ondare handia biltzen duelako eta biltzen jarraitzen duelako, eta bestetik, antolatuta dagoen moduatik, oso tresna garrantzitsua delako ikerketarako, eta bertsoak hainbeste urtetan eragin duen ondare hori eskuragarri izateko. Bertsolariarentzat ez ezik, euskalgintzatik, kulturgintzatik, antropologia-

tik edo edozein interes izan dezakeen ikerketa sailetik sekulako altxorra da.

Zein baliabide eskaintzen dizkizu XDZk?

Bertsolari bezala, bertsolaritzaren inguruan sortu den literatura ia guztia eta bertsoaldiak eskuratzeko aukera ematen dit. Bertso eskolako irakasle moduan, sarean zintzilik dauzkaten edukiak erabiltzen ditut doinuak bilatzeko, doinuaren izenak jakiteko, doinu ezberdinak lantzeko eta bertso sortak ateratzeko. Bestetik, sekulako prestutasuna izaten dute beti bisitak egiteko, artxiboa nola dagoen erakusteko. Ateak zabalik izaten dituzte beti eta erabilgarri jartzen digute hor jasota dagoen material guztia. Bertsozale Elkarte-ko transmisio sailetik ere lan handia egiten ari dira bertso-eskolentzat bereziki sortutako materiala zein orokorra eskaintzeko.

Askok estimatzen da zer nolako zo-

roztasunarekin eta zehaztasunarekin artxibatzen dituzten dokumentu guztiak, zein ondo antolatuta dauzkaten eta zein eskuragarri daukaten jarrita guztia. Beraiek ere sekulako gogoia daukate horri guztiari erabilera emateko; adibidez, ni neu askoz ere urrutiago ailegatzeko ari naiz nire ikerketan beraiei esker. Erraztasun guztiak jartzen dizkidate ikertzeko eta hori ikaragarritzko zortea da. Gozamenak da beraiekin lan egitea.

Ikertzailea zara; zein garrantzia ematen diozu XDZri ikerkuntza lan horiek egin ahal izateko?

Ikerlari moduan, oso garrantzitsua da oso lagin handia dutelako; saio ugari biltzen dituzte, eta garai bateko saio asko ere eskuragarri jartzen eta digitalizatzen ari dira. Horrek sekulako aukera ematen du urtetan atzera egin, eta gaur arte sortutakoaren bueltan oso ikerketa fidagarriak egiteko eta edozein esparrutik lan egiteko. Ikerketa horiek egitea oso garrantzitsua da ondarea interpretatzeko eta ulertzeko, eta horrek laguntzen digu bertsogintza gaur egunera egokitzen eta prestatzen. Etorkizunera begira sekulako eskola daukagu hor eta balio erraldoia dauka.

Eta etorkizunari begira zein garrantzia dauka?

Altxor handia da, ez bertsozaletasunaren ikuspegitik bakarrik, baita Euskal Herri osoko kulturgintzatik, euskalgintzatik eta nazioarteari begira ere. Mintzatutako sekulako lana egiten ari dira XDZk ahozketasun osoa har dezan; ez dio bertsoari bakarrik begiratzeko, baizik eta ahozketasun osoari. Eduki ugari sortzen ari dira nazioarteko maila akademikoan eta artistikoan, eta Euskal Herrian gure ondare handienetakoak jasotzen du. Ondare horri esker uler dezakegu zer gertatu den, nola gertatu den eta jendartearen inguruko informazio ugari ematen digu horrek. Etorkizunari begira aztarna asko ematen dizkigu, jakinda oraindik ere sortzen den guztia biltzen ari direla. Uste dut ez garela kontziente zein altxor daukagun; herritar askok urruti ikusten dute, baina nik animatzen ditut gerturatzen. Harrituta geldituko lirake bertan dagoen material guztiarekin eta horri eman diezaioketen erabilerekin.

San Joan egun beltza, 1981ekoa

ETAk apirilean argitara emandako 'Zutabe' aldizkarian, bere azken eztabaida prozesuaren ondorioen txostena eman du ezagutzera eta 774 hildako eta 2.606 ekintza armatu aitortu ditu. Orain arte, aitortu gabeko gertakari bat ere hartu du bere gain: 1981ean Tolosan hiru hildako eragin zituen atentatua.

Jon Miranda

ETAk borroka armatua behin betiko uzten zuela iragarri zuenetik, mahai gainean jarri dute «argitu gabeko hilketen» afera, hainbat elkartek lehenik eta Espainiako estatuko erakundeek gero, eta gehienetan, auzibide judizialen ikuspegitik. Aurtengo ekainean ETAk eskaini zuen azken elkarrizketan esan zuenez, eztabaida hori, «aurreko egoera birsortzeko eta aurrera ez egiteko erabiltzen ari dira». Bere aldetik, «termino politiko eta historikoe-tan» egindako guztia argitu duela dio desegindako erakunde armatuak, ez duela ardurarik ezkutatu.

Gara egunkariak eta *Naiz.eus* ager-kariak ETAk apirilean argitaratutako azken *Zutabe* aldizkariaren edukien berri eman dute. Azken eztabaida prozesuaren ondorioen txostena eman dute ezagutzera eta aipatu dute aldiz-

karian 774 hildako eta 2.606 ekintza armatu aitortu dituela erakundeak. Horietako bi, orain arte aitortu gabekoak dira. Tartean dago, duela 37 urte, 1981eko ekainaren 24an, Tolosan, poliziaekin nahastuta, hiru gazteren heriotza eragin zuen atentatua.

Ez da lehen aldia ETAk aitortza hori egiten duela. Aurtengo ekainean *Gara* egunkariak eta *Txalaparta* argitale-txeak elkarrekin kaleratu dute *ETAren zuzendaritzarekin azken elkarrizketa. Gernikatik Arnagara* liburua. Pasarte batean erakundeak dio, Tolosako gertaera hura, «akats larria» izan zela: «Ez gara gai esateko zergatik sortu zen halako nahasmena eta zergatik egon ziren arazoak hura behar bezala onartzeko».

Beti Alai parean, bazkalostean

1981eko ekainaren 24a zen, arratsaldeko 16:30ak inguruan, Beti Alai jatetxean bazkaltzetik atera, eta Iñaki Ibargutxi Erostarbe, Juan Manuel Martinez Castaños eta Pedro Conrado Martinez

Castaños, gaur egungo Maria Luisa Agirre doktorearen plazatxoan aparkatuta zuten autora –Seat 124 urdin batera– igo ziren. Une horretan, Rondilla kaletik auto batean bost pertsona zetozen eta horietako lau jaitsi –bi pistolekin eta beste bi metrailatekin– eta aparkatutako kotxe barruan zeuden hiru gazteen aurka egin zuten.

Lekukoek garaiko egunkariei kontatu zietenenez, *Gora ETA militarra* eta *Gora Euskadi Askatuta* oihuak egin zituzten ekintzaren egileek Rondilla kaletik Donostiako noranzkoan alde egin aurretik. Ekainaren 25eko *El Diario Vasco* egunkariak kontatu zuen, ordu horretan Arrameleko San Joan kaperan zegoela udalbatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariekin batera, arratseko otoitzetan parte hartzen. Jendetza-aren artean bidea irekitzeko, ekintzaileek armak erakutsi zituztela aipatzen du egunkariak, «herritarren artean nahasmendua sortuz».

Tokian bertan hil ziren, Iñaki Ibar-

Nahasmendua oraindik ere gehiago areagotzeko, ETA militarren izenean gizonezko batek hots egin zuen *Egin* egunkariaren erredakziora, ekainaren 25eko 23:30 aldera: «Ez dugu zirikusirik ordaindutako bi mertzenariok egindako ekintzarekin, zeinetan bi gazte hil diren. Euskadin nahasmena eta izua dakarte erailketok. Euskal Herri langileari dei egiten diogu hiletetara masiboki azaldu dadin. Herriak ez du barkatuko. Gora Euskadi Askatuta!». Handik pare bat ordura, *El Diario Vasco* egunkariko erredakzioan «arnasestuka» hitz egiten zuen beste gazte baten deia jaso zuten. Batallon Vasco Español taldearen izenean hots egiten zuela adierazi zuen: «Hiru abertzale exekutatu ditugu Tolosan, zuek abertzaleok espainolen aurka burutzen ari zareten erailketei erantzunez». Eta eten baten ostean: «Gora Tejero! Etarrek hiltzen duten espainiar bakoitzeko, guk hiru abertzale hilko ditugu. Gora Espainia!».

Ordu batzuk lehenago eman zioten lur Iñaki Ibargutxiri bere jaioterrian, Ugao-Miraballesen. Hil beila egin zioten herriko batzokian eta parrokian egin zizkiten, gero, hileta elizkizunak. Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Carlos Garaikotxea, bertan izan zen. Izan ere, EAJ militantea zen Ibargutxi eta batzoki guztietan masta erdira jaitsita eduki zituzten ikurriñak.

HBk, herritarren artean «izua» zabaltzeko, kontrolik gabeko zerbitzu para polizialei egotzi zien atentatua, hasiera batean

Jendetsua izan zen, ekainaren 26an Durangon, Juan Manuel Martinez Castañosi egin zitzaion azken agurra

Euskadi Buru Batzarrak atentatua gaitzestez gainera, beren irizpideak lehenesteko «armak erabiltzen zituztenen aurka» hitz egin zuen ohar batean, «beraien arabera ondo kalkulatuta burutzen dituztenean, eta baita, okerra egin eta desio ez dituzten biktimak eragiten dituztenean ere». Norabide berean hitz egin zuen Eusko Jaurlaritzako barne sailburu, Luis Mari Retolazak, eta uste osoz hitz egin zuen ETaren egiletzaz. «Orain arte zintzoak izan dira eta ez dute, beraiek tarteko izan direnean, aitortzeko lotsarik eduki. Kasu honetan, ez dakit beraientzako akatsa izan delako edo, ez dute bere gain hartu nahi izan».

EAJk, ekainaren 26rako, PSE, EE

eta PCE alderdiekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin batera hamar minutuko lanuzteak deitu zituen eguerdirako, «bakearen, askatasunaren eta demokraziaren alde, terrorismo eta indarkeriaren kontra». Deitzaileek ekimena «positiboki» baloratu bazuten ere, jendea ez zen batu protesta ekitaldietara. Tolosa, Durango eta Ugaon, HBk deitutako greba orokorrak ere ez zuten jarraipen zabalik izan, garaiko egunkariaren esanetan.

Jendetsuagoa izan zen, ekainaren 26an Durangon, Juan Manuel Martinezi egin zitzaion azken agurra. Pedro Migel Etxenike Eusko Jaurlaritzako sailburua, Juan Jose Pujana Eusko Legebiltzarreko lehendakaria eta HBko





**Fue herido
en atentado
en Irún el lunes
Falleció
el coronel
mutilado**



El coronel mutilado Luis de la Parra Urbaneja falleció en la mañana de ayer en la Residencia Sanitaria de San Sebastián, a consecuencia de las gravísimas heridas sufridas en el atentado de que fue víctima el pasado lunes en Irún. A media tarde de ayer fue instalada en el cuartelamiento del Batallón «Colón 24», de Ventas, la capilla ardiente con los restos mortales del fallecido. A las seis de la tarde de hoy será oficiado un funeral de cuerpo presente en la parroquia de «Nuestra Señora del Juncal»

Página 4.

Mahai Nazionaleko Paco Letamendia *Ortzi*, Jon Idigoras eta Periko Solabarria izan ziren hileta elizkizunetan. Eusko Gudariak kantatuz jaso zuten Martinez Castañosen gorpua eliza atarian eta meza amaituta, *Gora Euskadi Askatuta* eta *Gora ETA militarra* oihuak bota zituzten parte hartzaileetako batzuk. Bertaratutako jendearen beste zati batek, txistu eginez erantzun zion azken aldarri horri. Hilerrirako bidean, *Imanol, Iñaki gogoan zaituztegu* leloa zaraman pankarta zabaldu zuten herritarrek.

Ekainaren 27an, *El País* egunkariak Santi Brouard, HASI alderdiko buru eta HBko Mahai Nazionaleko kidearen adierazpenak jaso zituen. Tolosa-

ko ekintza erakunde armatuari egozte, ETA, eta bide batez KAS alternatiba defendatzen zuen ezker abertzale osoa «desprestigiatzeko maniobratzat» hartu zuen.

Zigor judizialik gabe

Orain arte, kasuaren inguruko auzibide judizialik ez da zabaldu. 1986an, Tolosako Udalarentzat lan egiten zuen pertsona bat zigortu zuten, atentatuaren ustezko egileei estalpea emateagatik, baina ordutik ez da beste epaiketak egin. Iñaki Ibargutxiren gurasoek, Txomin eta Mirenek, 1987an *Euzkadi* aldizkarirako hitz egin zuten eta Jose Fernando Unzueta kazetariak jaso zituen haiek esandakoak: «Ez dugu batere zalantzarik ETA izan zela atentatuaren egilea, izan ere, komandoko hiru kide identifikatu zituzten beranduago. Josetxo Jauregi eta Mikel Goikoetxea *Txape-la*, tartean. Dagoeneko hilda daude».

Minik handiena azalpenik jaso ez izanak eragin zien Ibargutxiren gurasoei: «Akatsa aitortzeko duintasunik ez edukitzea eta egindakoagatik barkamenik eskatu ez izana egiten zaigu mingarriena, kontuan hartuta, garai horretan, ETAn zebiltzala Ugao bertako beste bi mutil, Josu Urrutikoetxea eta Josu Abrisketa. Bietako bat gainera, Iñakiren laguna zen».

Modu bertsuan hitz egin du Marcos Hernandok, EHUKo irakasle izandakoak. ETAre azkeneko *Zutabe* aldizkarian informazioa kaleratu denean adierazpenak egin ditu Pedro Conrado Martinezen lagun gisa: «Sutu egiten nau akats bat izan zela esateak. Zergatik akatsa? Gainerako hilketak ez al ziren izan? Benetako akatsa ETA izan zen bere sorreratik. Bere existentzia erokeria hutsa izan da». Atentatua gertatu eta gutxira, Pedro Conradoren argunak, Natividadek, ETaren mezu bat jaso zuela adierazi du Hernandok, «ekintza erakundeak egin zuela eta okerra izan zela aitortuz». Handik urtebetera zendu zen alarguna ere.

Minik handiena azalpenik jaso ez izanak eragin zien Iñaki Ibargutxiren gurasoei, 1987an adierazi zutenez

2014ko ekainean Ugao-Miraballaseko Udalak lore eskaintza egin zion Iñaki Ibargutxiri herriko hilerrian

Aitortza, erreparazioa

Tolosako atentatuan hildako hiru lagunek, orain arte, ez dute aitortzarik jaso. 2014ko ekainaren 25ean Ugao-Miraballaseko Udalak lore eskaintza egin zion Iñaki Ibargutxiri herriko hilerrian. Bezperan, atentatuaren 33. urtemuga egunean, EAJk aurkeztutako adierazpena onartu zuen udalbatzak ohiko osoko bilkuran, aldeko zazpi boto eta EH Bilduko lau zinegotzien abstentzioarekin. Adierazpen horretan, Ibargutxiren hiltzaileei eragindako mina aitortzeko eskatzen zitzaien, eta hurrengo belaunaldiek gertatutakoa ez ahanzteko, herriko biktimarekiko memoria justu eta leiala lortzeko konpromisoa eskatzen zitzaien udalbatza osoari. ETAre terrorismoarekiko gaitzespen argia eta berehalako desgitea ere jaso zuen testuak.

Ugao-Miraballaseko Udalak egin dako eskaera ia denak, lau urte beranduago, bete egin dira. Aurtengo maiatzean egitura guztiak erabat desegin ditu ETak, eta bukatutzat eman ditu bere «ziklo historikoa eta funtzioa». Hilabete beranduago, ETAre zuzendaritzarekin azken elkarrizketa. *Gerrikatik Arnagara* liburuan, 1981ean poliziak zirelakoan Tolosan eragindako hiru pertsonen heriotza «akats larria» izan zela aitortu du publikoki eta azaroa hasieran berretsi da, *Zutabe* aldizkariaren edukia argitaratuta. Egia jakinda, aitortza eginda, orain, eragindako mina erreparatu beharko die euskal gizarteak hildako hiru gazteen senideei.



iragarkilaburrak.eus

Bigarren eskuko bateria ederra

Artaldea salgai

**hemen
eta
online**



Harrapaketan



Zure pribatutasuna oso garrantzizkoa da niretzat. Aldizkari hau irakurtzen duzunean ez dizut bertan agertzen diren eduki edo idazleonek inguruko publizitateak bidaliko. Artikulu hau irakurri baduzu esadazu lasai, informazio hori ez dut erabilera komertzialerako erabiliko eta.

Pribatutasuna, lotarako garaian logelako pertsona edo gortinak itzea da. Medikuek joan eta ateak itxita daudela kontsulta pasatzea. Egunerokotasunean erraz ulertzen dugun kontzeptu bat izan arren, espazio digitalean pribatutasunaren ideia nahasia da. Webgune bat bisitatze soilatik bertako produktuen iragarkiak behin eta berriz ikustera kondenatuta gaude gaur egun. Orain abisatu egiten digute, bai, baina Inter-

neteko cookieen politikak aprobetxatzeko modua Eguberrietako kolonia iragarkien estrategia baino agresiboagoa da.

Teknologia ez da bere burua erregulatzeke gaitasuna duen zer abstraktu bat. Teknologiak erabaki politikoak eta lege bidezko erregulazio zehatzak behar ditu garaian garaiko eta tokian tokiko behar, etika eta moralari egokitzeko. Arazoa betikoa da, legea, abusuaren ondoren etortzen dela normalean. Adibide moduan, iragarkiekin jarraituko dut. Irrati edo prentsa idatzian, politika arloko kanpainetan dirua nork inbertitzen duen agerian jartzera behartuta daude konpainiak Ameriketako Estatu Batuetan. Pasa den udan, kongresu iparramerikarrak Google, Facebook eta mundu digitaleko beste hainbat



ANDER LORENTE
IRAKASLEA ETA
INGENIARIA

multinazional behartu ditu neurri bera hartzera, sarean egindako publizitatearen gardentasun falta dela eta.

Hain urrutira joan gabe, gatozen gure herri eta hirietara. patinete elektrikoek erabilerak piztu du eztabaida azken hilabeteetan; ibilgailu motorizatu bezala edota oinezko bezala kontuan hartu behar ote ditugun, hori da gakoa. Gaur egun DGT-kez dio ibilgailu honi erreparatu ere egiten bere zirkulazio kodean, hurrengo bertsioan egingo duela dioen arren. Kontua da gaur egun patinete elektrikoan dabil-tzan pertsonak oinezkoen trataera bera dutela legez, espaloitik ibili beharko luketela alegia, eta gailu haue-tako batzuk 35km/h-ko (10 metro inguru segundoko) abiaduran ibil daitezkeela. Herri eta hiri ezberdinak beren ordenantzetan hasiak dira hau erregulatzeko arauak sortzen. Drone-

Arazoa betikoa da, legea, abusuaren ondoren etortzen dela normalean

kin ere antzeko zerbait gertatu zen duela urte gutxi batzuk. Dronak sortu artean ez zegoen hauen erabilera erregulatzeko beharrik, noski. Komertzializatu zirenean ordea, agintariak konturatzen hasi ziren herriguneetan makina hauen erabilera oso arriskutsua zela eta baita gauez nahiz aireportu inguruetan aireratzzea ere.

Honela, teknologiaren garapenak bere berezko bidea jarraitu nahi duen artean, legeak atzetik jarraitzen dio geratu nahian, harrapaketa ariko bailiran.

Agenda

OSTIRALA AZAROAK 16

ADUNA

KULTURASTEIA

20:30. *Handia* filma, elizan. Emanaldiaren ondoren filmean parte hartu duten aktore eta hainbat eragileren bisita izango da.

ALEGIA

ANTZERKIA

18:00. *Alu Ulu* antzerki foroa, Elizpe zinemaren Arremanitz kooperatibaren eskutik.

MUSIKA

22:30. Gera Sexatu eta Physis Band taldeen kontzertuak, Gaztetxean, *Alegiako Gaztetxeak 31 urte, ordago* egitarauaren barruan.

AMEZKETA

KULTUR HAMABOSTALDIA

19:30. Iñaki Etxezarraga *Etxe* eta Iban Gurrutxagaren kontzertu akustikoa, kultur etxeko aretoan.

20:30. Talo jatea, Larrunarri frontoian, DBH4ko ikasleek antolatuta, Gaztelekuko gazteen laguntza izango dute.

IKAZTEGIETA

DOKUMENTALA

19:00. *Aralar, Mundua leku den lurra*, dokumentala, udaletxeko areto nagusian.

TOLOSA

BABARRUNAREN FESTA

19:30. Tolosako Babarrunaren Kofradiaren kapitulua eta ohorezko kideen izendatzea, udaletxeko batzar aretoan, herritarrei irekia.

ZIKLOIA

22:00. *Gertrudis-en lagunak* antzezlanak, Amaroizko Auzo Etxean, Pollo Rosa Produktzioak-en eskutik.

MUSIKA

22:30. Eztanda eta Rodeo taldeen kontzertuak, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

ZIZURKIL

ERAKUSKETA

17:30. Jolas kooperatiboen erakusketa, Plazida Otaño Ilburutegian, Aitziber Cenzanoren eskutik. Zazpi urtetik gorakoentzako jokoak landuko dira, eta bertan parte hartzeko izena eman beharko da Ilburutegian edo udal bulegoetan.



BABARRUNARI GORAZARRE, ASTEBURU OSOAN ZEHAR

Tolosak Babarrunaren Festa izango du asteburuan. Atzo hasi ziren ekitaldiak eta gaur 19:30ean jarraituko dute, Babarrunaren Kofradiaren kapituluarekin. Larunbatean eta igandean ohiko ekitaldiak egongo dira. ATARIA

LARUNBATA AZAROAK 17

ADUNA

KULTURASTEIA

18:30. Elizan *Denboraren taupadak* antzezlanak izango da umeentzat.

20:30. Pilotalekuan, Eusko Label produktuekin osatutako pintxoekin afari-merienda.

21:00. Trikiti Gaua frontoian. Izer eta Alabier, Kris, Maixa eta Irati, Julen Alonso eta Eneritz Aulestia eta Leire, Eider eta Maider ariko dira.

AMASA

SAN MARTIN JAIK

11:00. Ume Krosa.

12:00. Tio Teronen Semeak taldearen *Freshcool* dantza ikuskizuna, plazan.

14:00. Herri Bazkaria.

19:00. Bertso saioa elizan: Unai Mendizabal, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia *Txapieta* Miren Artetxe. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

Ondoren, Martina Sorginari agurra.

24:00. Dj Jotatxo.

ALBIZTUR

BABARRUN JATEA

Ikusi egitarau osoa 7. orrialdean.

AMEZKETA

IV. ERGONEKO FESTA

17:00. Frontoizaharrean VI. Hiruterdiz-aurre Pilota Torneoko finala, eta ondoren, poteoa.

20:30. Txooooo! Altuna Anaia frontoian.

Gauean. Oharkabe taldearekin erromeria.

BALIARRAIN

KULTUR EKITALDIK

16:00. Umeentzat merienda.

17:00. Buztin tailerra.

IKAZTEGIETA

UDAZKEN KULTURALA

16:15. XXVIII. Herri Krosa, haurren txanda.

16:30. XXVIII. Herri Krosa, helduen txanda. Herrigintza elkarteak antolatuta.

15:00-17:30. Gazte Taldeak Greziako errefuxiatuekin lan egiten duen Zaporeak proiektuarentzat neguko arropa eta barruko arropa berria bilduko ditu, plazan.

21:00. Herrigintza elkarteak kideen afaria.

TOLOSA

BABARRUNAREN FESTA

06:30. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketaren hasiera, Trianguloa plazan.

08:00. San Blas elkarteak antolatuta, XXVI. Odolki Lehiaketaren hasiera, San Franzisko pasealekuan.

09:00–14:00. Azoka berezia, Trianguloan.
10:00. Tolosa eta Charleville–Mézières herri frantziarraren arteko senidetzea, udaletxean. Bi herriek dute lotura txotxongiokoen.

10:15–13:00. Euskal Herriko X. Frisoi Txapelketa, ferialekuan.

11:00. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako epaimahaiak bere lanari ekingo dio, Trianguloa plazan.

11:00. Udaberriren emanaldia Trianguloan eta, ondoren, kalejira, Bentazarreko Mutiko Alaiek lagunduta.

11:15. Erraldoiak, Trianguloa plazan.

Goizean. Lazkaoko trikitilariak.

12:00. Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eta Bizkaiko Putxeraren Kofradiaren eskutik, Tolosako babarrunak dastatzeko aukera, putxera erara, Trianguloa plazan.

12:15. Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa egingo dute, Trianguloa plazan.

12:30. Babarrun irabazlearen lakari baten enkantea, Trianguloan. Lortutako dirua Haurkizuna fundaziora bideratuko dute.

13:00. X. Frisoi txapelketako sari banaketa, Ferialekuan.

14:30. Tolosako elkarte eta tabernetan babarrun jatea.

18:45. Oihana Iguaran eta Unai Agirre bertsotan, Beti–Alai jatetxeko balkoitik.

19:15. Jainekin txaranga, Maria Luisa Agirre doktorearen plazatik hasita.

20:15. Asier Gozategi, Iñaki Larrañaga eta Julien Alonso trikitilariak, Orbelako balkoian.

Ondoren, trikitilariekin Euskal Herria plazara.

20:35–21:45. Solano & DJ DZ, Euskal Herria plazan.

23:30. Gozategi, Plaza Berrian

01:30. Jainekin Txaranga, Plaza Berritik.

TXOTXONGILOAK

11:30. Bisita gidatu antzeztua, Topic-en, euskaraz.

12:30. Bisita gidatu antzeztua, Topic-en, gaztelaraz.

18:30. *El caballero de Olmedo* lana, 6 urtetik gorako ikusleentzat, Topic-en.

BIRZIKLAPENA

16:30. Birziklatu azoka, Berdura plazan, Ana Yurd elkartearen eskutik.

ZIKLOIA

17:00. *Lomás "In"* antzezana, Amarozko Auzo Etxean, Diego Calaviaren eskutik.

MUSIKA

22:30. Bamms eta Plan B taldeen kontzertuak, Bonberenean. Sarrera: 6 euro.

ZIZURKIL

BERTSOLARITZA

20:00. Pello Mari Otaño Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa eta bertso afaria Lujanbio eta Agirrerekin, Iriarte jatetxean.

IGANDEA AZAROAK 18

ADUNA

KULTURASTEIA

10:00. Aburuza eta Zabala sagardotegietara bisita gidatua, eta ondoren, hamaiketako.

12:00. Elizara eta kanpandorrera bisita gidatua eta gero, txistulariak, plazan.

ALTZO

HERRIANTZERKIA

10:30. Gure Handiaren Ibilerak antzerkia herrian zehar, Altzo Azpiko errotatik Altzo Muinoko plazaraino.

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:30. *Espacio disponible* antzezana, Gurea antzokian, gaztelaniaz. Sarrera: 10 euro.

AMEZKETA

KULTURHAMABOSTALDIA

10:00. Peri Eguna.

ANOETA

GAZTETXEAREN XX. URTEMUGA

16:30. Hezkuntzaren oinarriak eta funtzioak.

BALIARRAIN

KULTUREKITALDIAK

14:00. Bazkaria, Arkaitz elkartean.

TOLOSA

BABARRUNAREN FESTA

08:00. Gure Kaiola elkarteak antolatuta, XXXII. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoaren hasiera, Trianguloan.

14:30. Herri bazkaria, Zerkausion.

16:30. Tolosako Babarrunaren XXXII.

Lehiaketa gastronomikoaren sari banaketa, Zerkausion.

TXOTXONGILOAK

18:30. Hop Signor konpainiaren *Giraffelana*, 6 urtetik gorakoentzat, Topic-en.

ZIZURKIL

SAN MILLANEGUNA

11:00. Meza.

14:00. Bazkaria, Iriarten, soinu jotzaileekin.

ASTELEHENA AZAROAK 19

TOLOSA

ODOLE MATEA

18:00. Hilleroko odol-ateratzea, kultur etxeko Topagunea gelan.

ANOETA

DOKUMENTALA

19:00. *Aralar, mundua leku den lurra*, dokumentala, Mikelasagasti auditoriumean.

AMASA-VILLABONA

EUSKARALDIA

19:00. Formazio saioa, Mintzolan.

ZINEMA

BLACK IS BELTZA

Ostirala (22:00).
Astel lehena (21:00).

Gurea,
Amasa–Villabona.

BLACK IS BELTZA

Larunbata (19:30).
Astel lehena (20:30),
ikuslearen eguna.

Leidor aretoa, Tolosa.



SMALL FOOT

Igandea (17:00).
Haur zinema.

Tolosa,
Leidor aretoa.



HA NACIDO UNA ESTRELLA

Larunbata (22:30).
Igandea (19:30 eta
22:00).

Leidor, Tolosa.



Borrokaz eutsi lanari



BEÑAT IGUARAN

*Herritar eta gidari
eginaz hainbat eskari
zerbitzu on bat eman nahiean
eskualdeari
borrokaz eutsi lanari
lorpena berez da haundi
beraz zorionak herritarrei ta
langilegoari*



Doinua

Aizak himutil
mainontzi

Arra(za)mazka

Marroidun koloreko kartoiz-ko kaxa batetik irteten zen intziria entzun nuen lehenengoz. Estalkia bera, barruak ezkutatu ezin zuen opari baten moduan. Luze egingo zitzaion noski bidaia, eta baita bere amaren babese-
tik izandako banaketa. Baina, ziur diotsut; ilusio, eta josta gogoz atera zuela kaxatxotik burua. Ze arraio, baze-
kien eta etxeko alabaren begirada

orlegiak goxotasuna emango ziola lehenengoz gurutzatzen zirenean.

Lehen eguna, eta paseotxo bat emateko garaia. Bistan zen alabak lepoan jarri zion sokak enbarazu egiten ziola, baina; pixkanaka, sokaz kalera irteten irakatsi behar genion, etxeko abere izanik ere, gizarteratuta bizi den animalia baten tankeran. Makina bat aldiz egiten zuen negar, baina ez zion axola, heziketaren parte baitira batzuetan negar eta bestee-tan poza. Nire gogoetak jarraitzen zuen bitartean, plazaraino sekula ttipi-ttapa pasa ez nuen denbora jardun nuela konturatu nintzen. Hura zen hori bazterrak maitu beharra, eta beste txakurrei kasu egin nahia, ez nintzen nahi ordurako iritsi!

Ez zen denbora asko behar izan maitagarria izango zela jakiteko, jabeak emandako maitasunez jokatzeko bai dute beraiek ere. Berehala hasi zen txoko ezberdinak berarentzat kuttun egiten. Bere izena esaten genuenean,

harridurazko aurpegi berezi bat baleukan burua okertu eta imintzio txiki batekin guri begiratzen. Parkera gerturatzeko zen haurrik txikienaren miresmena lortzen eta laztan ugari jasotzen.

Helduengandik ordea, gaur egun hainbeste kuriositate pizten duen eta ezer ere esan nahi ez duen arraza motagatik galde-tzen.

Nik, oso maiz animalia sentikorra dela esan ohi dut, mina eta oinazea pairatzen dakiena. Goxo tratatzen duenari, goxotasunez erantzuten diona, eta

purrustaka dabilenari, zaunkaka agurra botatzen diona. Hori iruditzen baitzait arrazak kondenuatu beharrean ekintzak epai bihurtzeko modu bakarra.

Izan ere, animalia, eta arraza oro: soilik ulertzen baditugu, zaindu ahal izango ditugu. Soilik zaintzen baditugu, lagundu ahal izango diegu. Soilik laguntzen badiegu, salbatuko ditugu... Eta hau, maitasunez baino ezin da lortu.



MADDI AMIANO ALLUE
IKASLEA

Oso maiz animalia sentikorra dela esan ohi dut, mina eta oinazea pairatzen dakiena. Goxo tratatzen duenari, goxotasunez erantzuten diona, eta purrustaka dabilenari, zaunkaka agurra botatzen diona

KOMIKIA GORKA SALABERRIA



Zahartzearen izakera

Urtebete pasa da erretiroa hartu nuenetik. Erretiroduna naiz. Tarteka-marteka horrelako gogoeta txapel batzuk idazten ditut. Azken bolada honetan gai berdinarekin nabil. Guztiok dakizkigun gauzak dira: aberatsa ez dela gehien daukana, gutxien behar duena baizik; edota amodioa ilargia bezala dela, hazten ari ez denean murrizten ari dela. Guztiok dakizkizkigun gauzak dira. ATARIA egunkariko irakurleek ongi dakite zer den zahartzea. Batzuk geure haragian bizitzen ari garena eta besteek bere aitona-amonen biziteran ikusten dutena.

Egia da esperientzia zabala behar dela honetarako, tori zahartze osasungarriagoa errazteko hamar aholku:

1. Zaindu zeure gorputza, argi eduki burua. Jantzi zaitez txukun-txukun, apaindu zeure burua eta ibili.

2. Kalera atera zaitez. Ez zaitez etxe barruan geratu. Gizarteratu: ibili, elkartu, biltokietan bildu. Ur geldia usteldu egiten da, eta mugitzen ez den makina herdoildu.

3. Maita ezazu ariketa fisikoa zeure burua bezala. Jarrai ibiltari izaten: parte hartu «Mugi» edo «Tipi-tapa» bezalako esperientzietan.

4. Bizi ohoretasunez eta zaude harro zeure bizikerarekin. Ez bururik makurtu, ez bizkarrik okertu, ez hankarik arrastatu.

5. Ez hartu zeure burua agure edo gaixo bat izango bazinake bezala.

6. Oroz gain, izan zaitez positiboak, hitz egin umore onez, alaitu zure aurpegia, izan zaitez atseгина. Zahartzaroa ez da urte kontua, aldarte kontua baizik!

7. Izan aktiboa. Egin gauza probetxugarriak bai zeuretzat eta bai besteentzat.

8. Jarrai lanean, beste erara noski. Lan egin eskuekin bezala buruarekin ere. Lana terapia bikaina da.

9. Eutsi bizirik eta gogotsu giza harremanei.

10. Bizi oraina. Izan itxaropen. Jakin bihar eguzkia aterako dela. Utzi atzoko eta iraganeko kontuak bestaldean.

Egia da gure gizarte postindustria-

lean gozamenak baduela bere tokia, geroago eta gehiago, baina gaur beste gozamen iturri hauek dakartzat: elkarrekiko maitasuna, adiskidetasuna, barruko bakea, lasaitasuna... Badakit betikoak direla, gartzaroan edo helduaroan bizitakoak, baina orain astiro egin daitzkeenak. Zahartzaro duina eta zahartzaroz gozatu, eta duintasunez zahartu.



**JOXE AGUTSIN
ARRIETA**
ERRETIRODUNA

Oroz gain, izan zaitez baikorra. Eman iritzi positiboak, hitz egin umore onez, alaitu zure aurpegia, izan zaitez atseгина. Zahartzaroa ez da urte kontua, aldarte kontua baizik!

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, solasaldia Iñaki Azaldegi eta Juan Ignazio Hartsuagarekin, Tolosako azokaren tartea, Alain Rekondoren zinema eta Karlos Linazasoro Kale kantoitik.

12:00. Entzuteko jaioak.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Mingaina txulora Konplexuei buruzko saioa Jon Imanol Etxabe sexologoarekin.

LARUNBATA

12:00. Hauspo Artean. Trikiti saioa, Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.

21:00. Playback Ataria. Adriana Gaultierrekin.

IGANDEA

10:00. Asteko onena.

107.6 fm

www.ataria.eus

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearekin eguraldiaren iragarpena, asteburuko errepasoa, Aitor Mendiluze kale kantoitik, Anjel Cuervo bidaiarien tartean.

11:00. Hamaiketako. Villabona-Aiztondo eta Anoetaldeko berriak, Jon Mirandarekin.

12:00. Entzuteko jaioak.

16:00. Zebrabidea.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Hauspo Artean. Trikiti saioa, Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

16:30. 1,2,3 Hemen da Miru.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:00. Kick Boxingeko K1Txapelketa.

22:30. Plazako aulkitik.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

OSTIRALA
16



IGANDEA
18



LARUNBATA
17



ASTELEHENA
19



FARMAZIAK



AZAROAK 16, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Etxebeste, J. M.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

AZAROAK 17, LARUNBATA IBARRA

Egunekoa. Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

AZAROAK 18, IGANDEA TOLOSA


Egunekoa. Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

AZAROAK 19, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Mujika, E.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.



atariako arkua
zure herriko jai edo kirol ekitaldietan
erabili nahi baduzu eskatu doan:
ataria@ataria.eus • 943 65 56 95



Urte askoan!

Zorionak Xuhar!

Jada 5 urte! Egun on eta zoriontsu bat izan dezazula!
Muxu handi bat Neia, aitatxo eta amatxoren partez!

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

SOLUZIO PROFESIONALAK PAKETATZERA KO

embalajessakana.com



Zubi berri, 3 Amezketak
943 65 26 17 - 943 65 07 48
info@embalajessakana.com

